

NEGUKO SOLSTIZIOKO ZUHAITZA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Judea, K.a. VII. mendea. Jeremias profeta esan zuen “herrien ohiturak banitatea” zirela, egur zati bat “zilarrez eta urrez apaintzen dutelako, iltzez eta mailuz tinkatzen dutelako”, eta “baliorik gabeko objektuak gurtzen dituztelako, benetako Jainkoa gurtu beharrean”. Jeremias “iparraldeko herrien”, hau da, babiloniarren ohitura zaharra kritikatzeko ari zen: zuhaitz bat moztu eta enborra apaintzen zuten, bertan ofrendak uzteko. Beste egur zati bat, gurutzeta, adoratzeko mende batzuk geroago izango zuen arrakasta ez zuen iragarri iragarleak.

Tertuliano (ca. 160–ca. 220), aldiz, erromatarren kultura paganoren aurka egin zuen. Inperioan kaleak apaintzeko ohitura zuten Saturnoren jaietan: atee-tan erramua jartzen zuten eta luminariak pizten zituzten neguaren hasieran.

Zeltek haritzak fruituz eta kandelaz dotoretu ohi zituzten neguko solstizioan, eguzkiaren eta landareak itzuliko zirela ziurtatzeko.

Jeremias, Tertuliano eta zuhaitz paganoren aurka zeuden beste kristauen ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Eta kristautasunak, ohitura deuseztatu ezin zuenez, bere egin zuen, beste hainbatetan bezala. Kondairaren arabera, VIII. mendean, Alemaniako Hesse eskualdean, Thor jainkoari eskainitako haritz bat zegoen eta neguko solstizioan sakrifizio bat



Elektrizitatez pizten dira egungo Gabonetako zuhaitzak. Garai batean kandelak jarri ohi zizkieten –zeltek edo Martin Lutherrek berak, esaterako–, edo zuzenean su ematen zioten.

eskaintzen zioten urtero. Bonifazio misiolariak zuhaitza moztu omen zuen eta, ebanjelioa irakurri ondoren, bertakoei izei bat eman zien, betiereko bizitzaren irudi, “hostoak beti berde dituelako eta adaburuak zerua seinatlatzen duelako”.

Gabonetan pinua etxeetan jartzeko ohitura zabalduz joan zen eremu haietan, baina, hasiera batean, sabaian adaburuz behera zintzilikatzen zituzten. Diotenez, Martin Luther (1483-1546) teologoak Gabonetako zuhaitzaren adarretan kandela batzuk jartzea erabaki zuen, ziurrenik zelten usadioaren berri

jakin gabe, “izarrek neguko gauetan bezala dir-dir egiten dutelako”.

1510eko Eguberrietan, Rigako (Letonia) dendari batzuek izei bat jarri zuten azoka-plazan, arrosaz apaindu zuten, inguruan dantzan aritu ziren eta, azkenean, su eman zioten. Tallinen (Estonia) diote urte batzuk lehenago, 1441ean, antzeko zerbaite egin zutela. Eta, hala, Baltikoko bi hiriak lehian ari dira plaza publiko batean Gabonetako zuhaitza lehenengoz nork jarri zuen, ohitura berria balitz bezala, Jeremiasek 2.000 urte lehenago gaia hizpide izan ez balu bezala. ■



GUNNAN MENANDER / LUND UNIVERSITY

Sasoi ederrean... hil eta gero

Argazkikoa Peder Winstrup-en (1605-1679) momia da. Lundeko (Suedia) apezpikuak orotariko gaitzak izan zituela adierazten du gorpuzkiak: gaixotasun kardiobaskularrak, behazun-harriak, Forestier-Rotés-en gaixotasuna, hezueria, txantxarra eta, ziurrenik, tuberkulosia. Kontua da haren gorpua ez zutela baltsamatu, modu naturalean kontserbatu dela hain egoera onean.

Lundeko Unibertsitateko Historia Museoko zuzendari Per Karstenen arabera, bost arrazoik eragin zuten hori: aire lehorrean naturalki momifikatu zela; neguan hil zela; bi urtez ohean egoteak giharren zati handi bat galtzea eragin ziola; gorpuekin ehortzitateko landare usaintsuek intsektuetatik babestu zutela; eta kriptako hezetasuna eta tenperatura konstanteak izan direla. ■